

Emaitza bikainak
lortu dituzte
Tolosa CFko
emakumeek ▶ 7



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Asteartea ▶ 2006-07-25 ▶ IV. urtea ▶ 946. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Goikoetxea, Gabirondo eta Aranalde gazteluarrak finalean

SEGA ▶ Euskal Herriko Sega Txapelketako finala jokatu dute datorren igandean Otxandion, Lapazaranekin batera

FINALERDIA ▶ Alkorta kanpoan geratu da; Goikoetxeak 675,5 kilo bildu zituen, Gabirondok 665,5 eta Aranaldek 771,5 ▶ 5



Suziriarekin eman zioten hasiera Santio jaien egitarau oparoari

VILLABONA ▶ Onddo Gazte Asanbladako kideek bota zuten txupinazoarekin lehertu zen jaia atzo eguerdian. Erraldoiak, batu-kada, dantzariak, kalejira, haurrentzako jolasak... izan ziren txupinazoaren ostean. Gaur, Santio Eguna, festetako egun bereziena ospatzen dute billabonatarrek; goizean goiz hasiko da jaia, eta hurrengo eguneko goizaldera arte luzatuko dute. Besteak beste, herriko krosa, Meza Nagusia eta Sokadantza izango dira; Gaztetxean, Ipi eta Skamatxin taldeen kontzertuak. **NEREA URBIZU** ▶ 4



ITZIAR ZUGASTI ▶
TRIATLETA

«Ironmanak nire burua ezagutzeko balio izan dit»

Bizitza erdia darama tolosarrak triatloietan parte hartzen; aurten Ironmana egin du ▶ 6



Itziar Zugasti triatleta. E. EZEIZA

TOLOSA ▶

Etorkizun argiagoa topatu asmoz, etorkin ugari etortzen dira

17 adingabeko daude egun herrian ▶ 2-3

GIZARTEA ▶

IÑAKI BENGOETXEA
GAZTERIA TEKNIKARIA

«Bai Udalek, bai eta herritarrek ere lagundu beharko lukete gizarteratzean, arazoa gizarzte osoarena baita»

JOSE MARI LEZANA
UMEEN BABESERAKO ATALBURUA

«Donostian 38 gazterentzat zentro bat eraikitzen ari gara, eta bi urteren buruan martxan egotea espero dugu»



Jose Mari Lezana. i. t.

ARANTXA RODRIGEZ
NUEVO FUTURO-KO ORDEZKARIA

«Lanerako helburuarekin etortzen dira, beraientzat eta familiarentzat diru-sarrerak lortzera»

ISIDRO POUZAS
ZENTROKO KOORDINATZAILEA

«Herriko jendea ez dago ohituta egoera honekin; mutiko hauek bere denbora behar dute gizarteratzeko»

Etorkizun argiago baten bila

Sevendenea zentroan eta Oria hotelean 17 etorkin adingabeko bizi dira; Foru Aldundiaren ardurapean, formazioa eta heziketa eskaintzen zaizkie gazte hauei

IÑIGO TERRADILLOS

Ohikoa da oso familian edo ingurukoaren sendian Ameriketara bizi diren odol berekoak topatzea. Honen arrazoa oso argia da, emigrazioa. XIX. mendean, besteak beste arrazoi ekonomikoak bultzatuta, milaka euskaldunek igaro zuten ozeanoa aukera berrien bila. Euskaldun hauek hainbat lanetan nabarmenduko ziren: ardi-hazkuntzan, eraikuntzan, itsasontzietako zamaketan, gazitegietan, urre bilaketan... Garai haietan kanpora jotzea ohiko zen, bai eta gurera etortzea ere, izan ere, industrializazio prozesuan aurkitzen zen Euskal Herria, eta lana aurkitzea esan nahi zuen horrek.

Emigrazioa eta immigrazioaren gaia hor egon da, eta egongo da, lurralde txiroen eta aberatsen arteko desberdintasun neurrigabeak irauten duen artean behintzat. Azken urteetan, baina, gure lurralde gehiago dira immigrazioaren adibide, emigrazioarena baino. Bizi baldin-



Esker-eskuin: Jose Mari Lezana, Gipuzkoako Foru Aldundiko Umeen Babeserako atalburua, Iñaki Bengoetxea, Foru Aldundiko Gazteria teknikaria eta Arantxa Rodrigez harrera zentroetako zuzendaria. i. t.

tzak hobetzeraz datozen etorkin hauen kasuan, gainera, gora egin du nabarmen adingabekoen kopurua; era berean, Euskal Herrian geratzeko helburuz datozenen kopurua ere askoz altuagoa da egun: azken 3 urteetan, esaterako, %20tik %80ra igo da kopuru hori.

18 urte baino gutxiago dituzten etorkin hauek «bakarririk gabe, babesik gabe, eta legalki Foru Aldundien ardurapean geratzen dira», azaltzen du Jose Mari Lezanan Gipuzkoako Foru Aldundiko Umeen Babeserako atalburuak. Hala,

adingabekoa dela ziurtatu ostean, lehen harrerako edo urtegiatzako zentroetan sartzen dituzte. Gipuzkoan, Urnietan eta Tolosan daude zentro horiek, eta Nuevo Futuro erakundeak kudeatzen ditu. Etorkin adingabekoen kopuruak gora egiten duenez, eta zentroetan

lekua ez dagoela ikusita, Tolosako Oria hotela bezalako behin-behineko alternatibak hautatu ditu Foru Aldundiak: «zentro berriak topatzeko zailtasun handiak daudenez, pentsioak eta hotelak erabiltzea erabaki genuen», gehitzen du Lezanan; «dena den, Donostian 38 gazterentzako zentro bat eraikitzen ari gara, eta bi urteren buruan martxan egotea espero dugu».

Gizarteratze proiektua

Etorkina etorri eta lehen egunetan bere familiarekin jartzen dira harremanetan dokumentazioa bidaltzeko eta ondoren, kontsulatura jotzen dute pasaportea tramitatzera. Hori eskuratu eta 9 hilabete igarota bizi-toki baimena eskatzen da, adin nagusira arte ematen dena. «Horretaz gain, arreta psikologikoa ematen diegu, hau da, euren egoeraz galdetu, nondik datozen, dituzten helburuak, geratu nahi duten...», dio Arantxa Rodrigezek lehen harrerako zentroen zuzendariak.

Ondoren, gizarteratze plan bat egokitzen dute gazte bakoitzarentzat; «heziketa-jarraipen bat izaten dute, lanerako formazioa eta lanbide sarrera; era berean, hemengo egoeraren eta baldintzen berri ematen diegu eta beraien dituzten helburuak azaltzen dizkigute», dio Rodrigezek. «Guztietan errepikatzen den xedea izaten da: lanera etortzen dira, beraientzat eta familiarentzat diru-sarrerak lortzeko».

Formazioa eta heziketa ikastetxeen edota tailerren eta hezitzaileen esku egoten da. Tolosako zentroan, batzuk ikastetxeetan edo tailerretan ikasten dute, eta besteek zentroan bertan; «gaztelera irakasten diegu, etxeko lanak egiten dituzte, baratza lantzen dute, sukaldatzen dute...», dio Isidro Pouzas-ek Tolosako zentroko koordinatzaileak. «Lehen harrerako zentroa denez, batzuk iritsi berriak dira, horregatik ikastetxeetan izena eman gabe daude oraindik eta zentroan jasotzen dute heziketa; arrazoi

GILLERMO MALKORRA ▶ PEÑASCAL FUNDAZIOKO KOORDINATZAILEA

«Etorkinak lanerako motibazio altua ekartzen du»

Gillermo Malkorra tolosarra, Peñascal Fundazioako koordinatzailea da. Hain zuzen ere, bertan aritzen dira Tolosako zentroan edota Oria hotelean dauden hainbat etorkin lanbide desberdinak ikasten. Azken bi urteetan nabaritu da bereziki etorkinen hazkundea eskualdean, eta hazkunde hori ere ikusi dute Peñascalen. Honen guztiaren inguruan jardun da Malkorra HITZAREKIN.

Zein adinekoak etortzen dira tailerretara ikastera?

16 urte baino gehiago dituztenak hasten dira. Hortik gora, adin guztietakoak egon litezke.

Burnia, egurra... Denetarik lantzen duzue. Nola aukeratzan dute ikasi nahi duten lanbidea estreinakoz datozene?

Gustatzen zaienaren arabera izaten da. Askotan segurtasunetik dakite zer ikasi eta zertan lan egin nahi duten.

Etorkinak, bereziki, lan egiteko gogotsu etortzen omen dira.

Normalean, lanerako motibazio altua ekartzen dute. Batek, euren egoera legala dela eta 18 urterekin lana bilatu beharrean aurkitzen dira. Bereziki, baldintza hobeen eta au-

kera berrien bila etorri dira euren lurretatik, eta izaten duten helburuetako bat ahalik eta azkarren familiari dirua bidaltzea izaten da. Horregatik guztiagatik presio modukoa izaten dute. Hori dela-eta zertxobait helduagoak ere badirela esan daiteke.

Bertakoekin zer moduz konpontzen dira?

Etorkinen eta bertakoekin artean dagoen hartuemanak oso onak dira. Dinamika ona dago. Gainera arraza desberdinen arteko erlazioak aberastasuna esan nahi du, euren artean asko ikasten baitute.

Nolakoa izaten da formazioa?

Batez beste 4 urte egoten dira, prestakuntza, lanerako sarbidea, eta lanbide heziketa ikasten. Egunean 7 ordu dituzte praktikan eta tailerretan. Arratsaldeetan, alfabetizazio eskola boluntarioak ditugu, eta oso ondo erantzuten dute.

Lanbidea ikasi, eta lana topatzea dator ondoren.

Prestatuta daudenean, lana bilatzeko pausuak ere guk egiten ditugu. Orain artean, behintzat, lanean ari direnak oso ondo eta gustura ari dira. ◀

MARI MAR JIMENEZ
 HEZITZAILEA

«Gaia kalera atera eta kulturantzatasuna gehiago landu behar da bizi duten egoera zaila hobeto ulertzeko»

ADNANE
 ETORKINA

«Mekanikari bezala lan egitea asko gustatuko litzaidake; horretarako tailerrean egongo naiz lanbidea ikasten»

MOHAMED
 ETORKINA

«18 urte betetzear nago, eta nire egoeratik, ez dakit non egongo naizen bihar; nire helburua lana egitea da»

YASSINE
 ETORKINA

«Gustura nago Tolosan, baina gogorrena gurasoak hain urrun izatea da, hutsune handia sentitzen dut»

YOUNES
 ETORKINA

«Ile-apaintzailerako aritu nintzen ikasten eta zentroko kideei ilea nik moztzen diet; horretan egingo nuke lan gustura»

horregatik ere, gizarteratzea zailagoa da mutiko hauengan; egoera berria da herriko jendearentzat, eta ohitu gabe daude, baina uste dut denbora kontua izango dela».

Oria hotelean dauden 5 etorkinen egoera bestelakoa da; «eskolatuak daude, tailerretan ari dira ikasten eta autonomia eta jarrera egokiak erakutsi dituztelako daude bertan», azaltzen du bertako hezitzaileak, Mari Mar Jimenezek. «Gizarteratzea asko landu behar da oraindik; gaia kalera atera, jardunaldiak egin, euren egoera ezagutarazi, kulturantzatasuna landu... horrela hobeto ulertuko genuke bizi duten egoera zaila».

«Arazoa guztiona da»

Iñaki Bengoetxeak, Foru Aldundiko Gazteria teknikariak argi dauka etorkin hauen egoera ez dela erraza, «nerabeak izateaz gain, etorkinak dira, eta horrek asko zailtzen du herri-tartzea, beraienaganako aurreiritzi bat duelako jendeak; egia da, batzuekin heziketa zailagoa dela, eta arazoak izan direla, baina adingabeko hauen %10ak baino ez ditu sortu». Bengoetxearen ustez, «horretan lanean gabiltzanok ezezik, Udalek, eta herritarrek ere lagundu beharko lukete, arazoa guztiona delako, eta modu horretan, soilik, lortuko baita mutiko hauen gizarteratzea».

ZENBAI DATU ▶
KRONOLOGIA

1997 aurretik. Oso gutxi dira Gipuzkoara etortzen diren etorkinak.

1997an. 30 gazte inguru etortzen dira, baina ez dute bertan geratzeko asmorik.
2002ra bitarte. Urtetik urtera gehituz doa etortzen diren adingabeen kopurua, baina joera ez da aldatzen, hau da, Europako beste lurraldeetara jotzen dute.

2003tik aurrera. Joera aldatzen da, eta bertan geratzeko helburuarekin etorriko dira.

2004ean. Etorkin adingabeei harrera eskaintzeko arazoak daude, Donostiako eta Urnietako zentroak ez baitira nahikoa.

2005ean. Tolosako Sevendenea egoitza egokitzen

dute lehen harrerako zentro bezala. Urnietakoarekin bi dira gisa horretako zentroak Gipuzkoan. Nuevo Futuro erakundeak kudeatzen ditu.
2005 amaieran. Etortzen direnen kopurua handituz doanez, egoitza gehiago topatu bitartean, pentsioetan eta hoteletan sartzen ditu Foru Aldundiak etorkinak. Horietako bat da Tolosako Oria hotela.

ETORKINAK

Jatorria. %80-90 marrokiarrak dira. Gainerakoak Kamerun, Ghana, Aljeria, edota Europa ekialdetik etorriak.

Sarbidea. %70a kamioien azpialdean etortzen dira. Besteak pateretan.

Harrera. %90ak «oso ondo» erantzuten du eskaintzen zaion harrera.



Tolosako Peñascal Fundazioan ikasten dute lanbidea etorkin adingabe askok. IÑIGO TERRADILLOS

«Non biziko naiz bihar?»

Euren lurretatik ihesi, bizimodu duin baten bila etortzen dira; etorkizunean non eta nola egongo diren da haien kezka nagusia

I. TERRADILLOS

Mohamed, Yassine, Adnane eta Younes-en istorioa, hainbat eta hainbat adingabeko etorkinen moduan, errepikatu egiten da; euren etxetik, familiatik, lurretik urrutira aldegin zuten, mila kilometrotara, bizi berri bati ekitera, jaino ziren herrian etorkizun iluna baitzuten zain. Gehienek bezala, kamioien azpialdean edota pateretan egin zuten Euskal Herrirako bidea euren biziak arriskatuz; izan ere, asko izaten dira, bidetaren azkenera iritsi gabe erdian geratzen direnak. 15 eta 17 urte bitarteko lau mutiko hauek Tolosako zentroan eta Oria hotelean bizi dira.

Mohamed-en sendia, Tangerretik gertu, Larache herrian bizi da. Espainiako hegoaldera kamioi baten azpian joan zen, eta handik Bartzelonara egin zuen. Zentro batean egon ostean, Tolosara etorri zen; lehen-dabizi zentroan egon zen, eta han jarrera egokia erakutsi zuenez, egun Oria hotelean bizi

da. «Oso gustura aurkitzen naiz Tolosan», dio; «Goizetan tallerrera joaten naiz, eta arratsaldeetan, askotan, igerilekura joaten naiz». Hoteleko jendearekin ere pozik dago Mohamed, eta baita hezitzaileekin ere: «oso ondo moldatzen gara, eta elkarrekin joko eta irteera ugari antolatzen ditugu». Tolosako gazteekin erlazio ona dutela dio, baina helduekin hori zaila dela gehitzen du. Bestalde, bere etorkizunak asko arduratzen du Mohamed: «18 urte betetzear nago, eta nire egoeratik, ez dakit non egongo naizen bihar; nire helburua lana egitea da, horretara etorri naiz».

Yassine ere Oria hotelean dago. 16 urte ditu, Tangerrekoa da, eta 12 anai-arreba dira dena. Granadara (Espainia) kamioiez iritsi zen, eta handik Madrilera abiatu zen, bere anaia bat baitzegoen bertan. Euskal Herrira egin zuen orduan, eta Tolosara iritsi zen. «Oso ondo nago hemen, gustura». Andoainera joaten da egunero esko-

lara, eta hurrengo urtean tailerretan hasiko da lanbide bat ikasten. Besteek bezala, gurasoengandik hain urrun bizitzea «oso gogorra» egiten zaio Yassine-ri. «15 egunetan behin izaten dut beraiekin hitz egiteko aukera; ea noiz joango naizen galdetzen didate beti».

Adnane, 15 urte ditu eta Tangerrekoa da. 6 anai-arreba ditu. Algecirasen (Espainia) hilabete bat igaro ondoren iritsi da Tolosako zentroa. «Mekanikari bezala lana egitea gustatuko litzaidake». Adnanekin batera dago Younes zentroan. 17 urte ditu eta Tangerrekoa da. Beretzat tallerra ari dira bilatzen, lanean hasteko irrikak baitago: «egoitzako mutikoei moztzen diet ilea; Marokon ikasi nuen, eta horrelako lan bat egingo nuke gustura».

Familiaren «hutsune handia» sentitzen dute guztiek, eta lana topatu eta Marokoa oporretan joatea da beraien ametsa. Horretarako, ordea, bizi-tzak jarri dizkien traba ugariak egin beharko die aurre.



Sevendenea egoitzan, 12 etorkin adingabe bizi dira egun. I. TERRADILLOS

VILLABONA ▶ SANTIO JAIAK

Onddo Gazte Asanbladako kideek ireki dute jaietako egitarau oparoa

Ohiko txupinazoarekin hasi zen atzo astebeteko jaiak; gaur Santio Eguna izaki, ekitaldi ugari izango dira egun osoan



Erraza izan zen beroari aurre egitea, gazteek eskainitako urarekin. N. URBIZU



Villabonako besamotzaren atzetik, Loatzo Musika Eskolakoak. N. URBIZU

igo eta antzerkitxoak eskaini zuten Udalarekin duten hartu emana irudikatuz.

Antzerkiaren ostean, Gazte Asanbladako hainbat lagun, mozorroturik dantzan hasi ziren, eta ume batzuen laguntzaz txanpaina eta ura banatu zuten, beroari aurre egiten laguntzeko. Tarteka, urez betetako puxtarriak jaurti zituzten festa girotzeko. Halaber, dantzan ari ziren bitartean, Lubaki batukadakoak hasi ziren lanean. Bertatik abiatuta, kale nagusiaren barrena egin zuten kalejira.

Hauekin batera, erraldoiak eta buruhandiak ere abiatu ziren plazatik. Eta hauek laguntzen, berriz, atzean zituzten Loatzo Musika Eskolako haizezko tresnak. Herritarrek ere, noski, doinuen eta dantzaren atzetik jarraitu zuten festarekin.

Gaur ere goizaldera arte

Gaurkoan, Santio Eguna izaki, hainbat ekitaldi gozatzeko parada izango da egun osoan:

08:00etan, Tolosako dultzaineroek diana egingo dute; 10:30ean, herri krosa izango da Txerminen eta 11:00etan, dantzari txikiak kalejira egingo dute; 12:00etako Meza Nagusiarekin batera, kalejira egingo dute Debako Musika Bandakoek, eta 13:00etan kontzertua eskainiko dute Txistulari plazan; Ordu berean, Udal korporazioak Santiago egoitzara bisita egingo du; 19:00etan, Soka dantza izango da Oinkariren eskutik, 22:30ean, Arkaitz dantza taldearen emanaldia Arroan, eta gauerdian, dantzaldi-erromeria Zirikarekin.

Bestalde, Onddo Gazte Asanbladak Villabonako jaietako zazpi egunetarako egitarau berezia antolatzea erabaki du. Hala, gaurkoan, Ipi eta Skamatin taldekoen doinuak izango dira entzungai gaztetzearan 23:00etatik aurrera.

NEREA URBIZU

Atzo ekin zieten Villabonako Santio jaiak. Irigarrita zegoena baino zertxobait beranduago bota zuten txupinazoa, baina Onddo Gazte Asanbladako kideek hura botatzean lehertu zen astebeteko jaiak. Ordurako jende ugari elkartu zen herriko plazan festan hasierari behar bezalako harrera ematera. Txupinazoarekin batera, Gazte Asanbladako hiru kidek udaltxe ondoko eskenatoki gainera

EUSKAL JAIAK
BILLABONA 2006

Uztailak
29
Larunbata

18:30etan Sagardo dantza eta jiriboiak laguntzarekin
19:00etan ERROMERIA
Aztiazaren Anaiak & Juan Mari Beltran
21:00etan Alai herrikola plazan: **Zikino Jaiak**
22:00etan ERROMERIA, Tapia eta Leturia

Garaiak euskal jantziekin parte hartzerantz animatzen zaiteztegu
Zikino jaietako txartelak saigai ondoko lekuetan: 20€

Preso eta iheslarien aldeko juntokia
Villabonan jaietan
Berdura plazan

Uztailaren 24tik 31ra
20:00etatik 24:00etara

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. 635 74 52 91.

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. 677 32 99 34.

BESTERIK

Txakurkumeak. Artzai txakurkumeak oparitzen ditut, arrak eta emeak. Hilabete eta aste batekoak. Gaeuz deitu. 948 50 44 81.

EUSKAL HERRIKO SEGA TXAPELKETA ▶

Hiru gazteluarrak nagusi Lapazaranekin batera

Andoni Goikoetxea, Mikel Aranalde eta Joxe Gabirondo lehiatuko dira igandean, Otxandion jokatu den Euskal Herriko Segatxo Txapelketako finalean



Andoni Goikoetxea gazteluarra herenegun Mañarian izan zen finalurrekoan. JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS



Mikel Aranalde, iaz bezala, Euskal Herriko Segatxo Txapelketako finalean izango da. HITZA

ESTI EZEIZA

Aurreikuspenak betez, igandean erabaki zen Mañarian, nortzuk jokatu duten Euskal Herriko Segatxo Txapelketako finala. Eskualdeko lau ordezkari izan ziren finalerdietan lehiatzen, eta hauetatik hiruk lortu dute finalerako txartela. Gazteluarrek hain zuzen ere: Mikel Aranalde, Andoni Goikoetxea eta Joxe Gabirondok. Hauekin batera, Ion Lapazaran bizkaitarra ariko da Otxandion, datorren igandean, hilaren 30ean.

Belar ahula eta urria izan zuten igandeko finalerdietan, eta segalari gehienak ere «ez ziren gustora aritu lanean». Bestalde tanda bateko zein bestekoen partzelen artean desberdintasun handia zegoen. A multzokoenean, belar gutxiago zegoen, eta nahiz eta eremu handiagoa moztu, B taldekoek azken kiloetan alde nabarmena atera zieten. 200 lagun inguru bildu ziren Mañariako zelaietan ikuskizunaz gozatzeko. Hala eguraldia ere nahiko ongi portatu zen, eta giro polita izan zen.

Lehenengo multzoan Goikoetxea, Gabirondo eta Mariñelarena aritu ziren. Hauek 11:30ean ekin zioten belarra mozteari. Lehenengo biak, hasieratik nahiko parekatuta joan ziren sailetan. Lehia oso estua izan zen, eta hirurak ere indartsu aritu ziren. Gauzak ez ziren argitu azken momentura

SAILKAPENA ▶

A MULTZOA

Izena	kiloak
1. Goikoetxea	675,5
2. Gabirondo	665,5
3. Mariñelarena	647

B MULTZOA

Izena	kiloak
1. Lapazaran	941
2. Aranalde	771,5
3. Alkorta	713

arte, eta belar guztiak pisatzen ikusi zen nortzuk sailkatu ziren finalerako. Hala, Mariñelarena atzean utzita, bi Gazteluarrek gailendu ziren lehen tandan.

Bigarren multzoan, Aranalde, Lapazaran eta Alkorta neurtu ziren. Hauek 12:30ak aldera hasi ziren lanean, eta hemen, gauzak oso desberdin joan ziren. Hasieratik Ion Lapazaranek hartu zuen aurrea. Ez zen egon, beraz, aurreko multzoko oreka. Hala, nagusitasuna amaierara arte luzatzea lortu zuen bizkaitarrak.

Final handia

Finalera begira, hasiera batean, hau ere, Mañarian jokatzeko bazen ere, belar faltagatik, Otxandion egitea erabaki dute. Esan bezala, datorren igande eguerdian izango da. Eta oraingo honetan, finalerdian ez bezala, denak batera ariko dira ordubeteko saioan. Hala, denbora horretan belar kilo gehien moztean lortzen duenak irabaziko Euskal Herriko Segatxo Txapelketan. Igandeko finalerdien ostean Lapazaran da txapela janzteko faborito nagusia. Hala ere, kontuan hartu behar da, orain arteko saioak ordubetekoak izan direla, eta finala, berriaz, ordubetekoa, eta honek, gauzak aldatu ditzake.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88

ETXESAGASTI

Andoain. Altua, igogailuarekin. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Erabat eraberritua.

Trastelekua. Oso inguru onean. 44.000.000 pezeta. Etxesagasti 943 69 68 56.

Andoain. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Sartzeko moduan. Berogailua. Kanpoaldera. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Erdigunea. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Kalitateko berrikuntza. 44.500.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. 47m2 erabilgarri dituen apartamentua. Sartzeko prest.

Igogailuarekin. 29.500.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 bainugela. Igogailua. 46.500.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Guztiz eraberritutako pisu ederra. Hiru logela. Terraza. Kanpoaldera. 46.500.000 pezeta.

Ligorreta. 100m2ko pisu ederra, guztiz berritua. 3 logelarekin. Oso eguzkitsua. Garajea aukeran. Etxesagasti: 943 69 68 56

hitza

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN praktikak egin nahi?

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioan lizentziaturiko Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleei zuzendua

Urritik abendura aritzeko lanaldi erdi

Curriculum-a bidali helbide hauetara, irailaren 13a baino lehen:
Araba etorbidea, 5. atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

ZABALA DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347
Beotibar Industriegunea, 18 • BELAUNTZA

ITZIAR ZUGASTI ▶ TRIATLETA

«Nire burua ezagutzeko balio izan dit Ironmanak»

Bizitza erdia darama tolosar honek triatloien munduan; aurtan, Lanzaroten korritu du Ironmana

ESTI EZEIZA

Txiki-txikitatik kirol munduan ibili da Itziar Zugasti (Tolosa, 1974). Baina, 90eko hamarkadaren hasieran eman zuen triatleta izateko saltoa. Eta hasiera batean txapelketetan parte-hartzeak «lotsa» ematen bazion ere, ederki ikasi du.

Nolakoak dira zehazki triatloietako probak?

Beti ordena berdina izaten dute, lehenengo igeriketa, gero bizikleta eta azkenik korrika. Bestetik, probak izaten dira; distantzia olinpikoak, distantzia esprima eta besteren bat ere badago. Hortik, Ironmanetara pasatzen gara.

Eta hauek zein distantzia izaten dituzte? Zenbat denbora behar izaten duzue bakoitza egiteko?

Olinpikoak izaten dituzte: 1.500 metro igerian, 40 kilometro bizikletan, eta 10 kilometro korrika. Gero, badaude beste proba batzuk, adibidez orain prestatzen ari naizena, Guadalajarakoa (Espainia), eta honek, 1.900 metro, 60 kilometro, eta 12 kilometro ditu. Gero, aurtan prestatu dudana dago, Lanzaroteko (Espainia) Ironmana. Eta honek 3.800 metro, 180 kilometro eta maratoiko 42 kilometro eta 195 metroak neur-

tzen ditu. Hau egiteko, 13 ordu eta 53 minutu edo behar izan nituen. Hala ere, baldintzen arabera, triatloietatik bestera denborak asko alda daitezke.

Hiru kirol horietatik zein aukeratuko zenuke?

Gehien gustatzen zaidana korrika egitea da, hortik hasi nintzen. Hala ere, ni bezalasta mundutik nator, eta orain gehien gustatzen zaidana fondoa da.

Nola eta zergatik triatloietarako saltoa?

Nire kontura ibiltzen nintzen entrenatzen. Bizikleta hartzen nuen, gero korrika egitera joaten nintzen eta abar. Hala, jendeak esaten zidan, ea zergatik ez nintzen animatzen lehiatzera, baina nik esaten nien gustura ibiltzen nintzela entrenatzen, eta lehiarik ez nuela nahi. Baina, azken urteetan, 92an animatu egin nintzen. Santanderren (Espainia) proba bat zegoen, eta hara joan ginen.

Eta nola gogoratzen duzu lehen proba hori?

Tamalgarria izan zen, itsasoa... nire bizian ikusi ditudan olatu handienak baitzeuden. Jendeak uste zuen proba bertan behera geratuko zela olatuengatik-eta. Horrela, hurrengo batera ere animatu nintzen.

Orduak, zenbat aldatu dira gauzak?

Asko aldatu dira, lehen, agian, gehiago zen lagun arteko giroa, ongi pasatzea... baina, pixkanaka pixkanaka, lehiari bertan gehiago sartzen joaten zara. Eta orain ere, ongi pasatzen banoa, baina gehiago lehiatzera. Gero, gainera, konfederatu egin ginen Tolosako taldean sartuz, eta hemendik aurrera, talde batean egotean-eta, gehiago exijitzen dizute.

Nolakoak dira triatleten denboraldiak? Noiz hasten dira?

Gu entrenatzailearekin urtariletik hasten gara. Hala ere, denboraldia berez martxoan hasten da; duatloiekin hasten gara. Hasi, nahiko suabe egiten gara, eta normalean, egunean



E. EZEIZA

hiru orduko entrenamenduak egiten ditugu. Baina adibidez, aurtan, Ironmana prestatzen, egunean lau edo bost ordu aritzen nintzen egunerok. Bestetik, kirolak uztartzen saiatzen gara: igeriketa eta korrika, edo bizikleta eta korrika. Atsedan egunik ez dugu astean, atsedanaldi aktiboa egiten dugu, kirol lasairen bat eginez, baina gelditu gabe.

Kirolarekiko menpekotasuna sentitzen al duzu?

Behar bat bai sentitzen duzula. Ni adibidez ez naiz inoiz min hartuta egon, eta jasan behar-kon nuke, baina behar dut.

Sufrimendua konpentsatuta al dago?

Bai, nire ustez bai, zeren eta ordain oso handia da. Eta nik uste dut, nire burua aurkitu dudala Ironmanean. Hasiera batean probatzen ibiltzen zara: duatloiak probatzen dituzu eta... baina beno, agian, duatloietan ere hobeto ikusten dut nire burua. Hauek oso zakarrak dira, eta intentsoagoak, korrika, bizikleta eta korrika izaten dira. Eta hasiera batean, probatu nituenean oso gogorak egin zitzaizkidan, baina orain, triatloietan baino ere hobeto ikusten naiz.

Zein da triatleta izateko eduki behar den ezaugarria?

Erresistentzia izatea garrantzitsua da. Zure burua ezagutu, pulstazio zehatz batzuetan jarri, eta gorputza hauetan mantentzea. Bestalde, psikologiko-

DI-DA BATEAN ▶

Igeriketa, korrika egitea, ala bizikleta? Korrika egitea.

Igerilekua ala itsasoa? Itsasoa.

Mendiko bizikleta ala errepidekoa? Errepidekoa, baina kotxerik gabe.

Aldapan gora ala behera? Aldapan gora.

Indarrak hartzeko, barritak ala txuleta? Ez bata, ez bestea.

Kirola egiteko, 4 graduko temperatura, ala 32koa? 32.

Bakarka egiteko kirolak, ala taldekakoak? Kirolaren arabera.

Kiroldegi barrukoak ala kanpoko entrenamenduak? Kanpokoak.

ki ere oso prestatua egon behar dago.

Inoiz utzi al duzu proba bat amaitu gabe?

Bai, baina ezin dudalako, gutxitan. Batean, bizikletako kamara gabe geratu nintzelako, eta beste batean, katea puskatu zitzaidalako. Baina Ironmanetan ez, sekula. Oso kaskagor jarri, eta baldintzei aurre egiten saiatzen naiz.

Elikadura zaintzen al duzue?

Ez, nik ez, batere ez. Niri gustatzen zaidana, denetik sartzea da. Egia da, agian, pasta-eta gehiago jaten dugula, baina ez. Hala ere, entrenatzailearekin

batera, kirol medikuarekin aritzen gara, eta adibidez, Ironmanak esan nahi duenarekin, elikadura bidez jasotzen duzuna gutxienekoa da. Eta hortik aurrera, bitaminak, eta nesken kasuan, burdina behar izaten dugu.

Dopin kontuak modan dauden honetan, triatletei ere kontrolak egingo dizkizute?

Ez, eta hori lotsagarria da. Zeren, nire ustez, mundu honetan asko mugituko dira horrelako gauzak. Dena den, munduko txapelketetan-eta izaten dira. Baita Ironmanetan ere; kasu honetan, irabazleei egiten dizkiete, baina bestela ez.

Komunikabideetan entzute gutxi duen kirola da...

Bai, eta horrekin, pertsonalki, oso haserre nago. Denboraldi batzuetan, kexak zabaltzekotan egon naiz, oso nabarmen egiten baita; lasterketak eliteko jendea datorrenean soilik aipatzen dira, eta beti berdinak agertzen dira. Adibidez, niri gertatu izan zait, Llanostarrekina podioa banatu, eta haiek hura aipatu, eta ni ez. Horrek zer esan nahi du? Lasterketa bat ez dela kalitatekoa gutako batek irabazi badu?

Hemendik aurrera, nola duzue egutegia?

Asteburu honetan triatloietan bat dut Guadalajaran (Espainia). Eta gero, azken txapelketak hilairean amaieran edo abuztuan izaten dira; beraz, laster bukatuko dugu denboraldia.

KOMUNIKABIDEAK

«Eliteko triatletek parte hartzen edo irabazten dutenean bakarrik aipatzen dira probak komunikabideetan»

LEHEN TRIATLOIA

«Tamalgarria izan zen, itsasoa oso txarra baitzegoen, inoiz ikusi ditudan olatu handienak zeuden»

TXIRRINDULARITZA ▶

Emakumeak gurpil gainean

Aurten sortu den taldea izan arren, garaipen garrantzitsuak lortu ditu nazio mailako zein nazioarteko probatan; Ainhoa Pagola 6. izan da Europakoan



Lorturiko garaipen mordoarekin «benetan gustura» daude Tolosa CF taldeko txirrindulariak. I.ASENSIO

AGUSTIN PAGOLA ▶ TOLOSA CF TXIRRINDULARI TALDEKO ZUZENDARIA

«Gauzak ez dira gehiegi aldatu nesken txirrindularitzan»

Tolosa CF txirrindularitza taldeko zuzendariak urte mordoa daramatza txirrindularitzaren inguruan lan egiten. Aurten lortutakoari buruz eta nesken txirrindularitzaren egoerari buruz mintzatu da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN.

Galdera ekidiezina da. Nola dago nesken txirrindularitza, ari al da egoera hobera egiten?

Egia esan gauzak ez dira gehiegi aldatu. Espainian kadeeten kopurua nabarmen ari da hazten baina Euskal Herrian gauzak ez du gehiegi gora egin. Lasterketa antolatzailerik kopurua mantendu da, baina zaila da kalitatezko probak topatzea. Zizurkilen eta Se-



HITZA

villan (Espainia) egindakoak oso onak izan ziren baina gaitzuzkoak nahiko eskasak.

Zer dela eta kostatzen da hainbeste neska gazteak animatzea?

Arazo handiena kilometroak izaten dira. Gu nazio mailan ibiltzen gara lasterketa ezber-

dinetan. Urrun korritzen da. Neskek ikasketei garrantzia osoa ematea bilatzen dugu eta ahal duten neurrian txirrindularitza goza dezaten, baina hala ere animatzea kostatzen zaie. Probatuz gero, izugarri gustura aritzen dira, bidaiatzeko eta jende asko ezagutzeko aukera ematen duen kirola delako; baina, noski, gogoa behar da entrenatzeko eta hara eta hona ibiltzeko.

Nola aurrikusten duzue etorkizuna?

Betiko da. Zailtasun ugari egin behar diegu aurre, baina azkenean enpresa dezente agertzen dira laguntzeko prest eta aurrera egiten dugu. Poliki baina aurrera goaz. ◀

IÑIGO ASENSIO

Ez dute amaitu berri den Tourrak duen oihartzuna lortzen; beraien izenak ez dira Landis, Pereiro edota Klodenena bezain beste entzungo, baina Somarriba, Longo edo Luperiniren lekuokari heldu nahi diote gogoz. Zailtasunez beteriko kirol bat aukeratu dute; mutilek monopolizaturiko egungo txirrindularitzak uzten dien lekua onartu eta bertan borrokatuz, bidea egin naihean dihardute. Denek daramatzate etreak bi gurpilen gainean, baina aurten, Agustín Pagolaren zuzendaritzapean, Tolosa CF izenarekin ekin zioten denboraldiari; Tolosaren izena zabaltzea ere lortu dute, izan ere, garaipeak bata bestearen atzetik heldu dira.

Ainhoa Pagolak eta Udane Sarasolak, esaterako, denboraldi bikaina egin dute pistan. Biek ala biek ekarri dituzte dominak Espainia-koetatik, eta Pagolak 6. izan da Europakoetan, bereziki atsegin duen proba batean, 500 metrotan.

Errepideko lasterketetan Xari Rodriguezek eta Ana Usabiagak izugarriko borroka daramate, bakoitzak bere mailan, Espainiako Kopa irabazteko. Uneotan Usabiaga lider da bi proben faltan, eta Rodriguez bigarren. Abuztuan, Albacete eta Zamoran (Espainia) jokatu dute urteko txapelketa nagusiko sailkapen orokorra.

Beraiez gain, Camila Ayalak, Virginia Lotinak eta Maider Oteizak ere postu onak lortu dituzte egunera arte jokatu dituzten proba ezberdinetan. Agustín Pagolaren hitzetan «benetan ikaragarria litzateke Espainiako Kopa bi mailetan irabaztea». Abuztuan izango dira horretarako lehian.

TOLOSA CF ▶

TALDEKIDEAK
Elite maila

- ▶ Xari Rodriguez
- ▶ Lide Larrañaga
- ▶ Dina Mendikute
- ▶ Ainhoa Pagola
- ▶ Kontxi Fernandez
- ▶ Fany Perez
- ▶ Sonia Villanueva
- ▶ Virginia Lotina
- ▶ Camila Ayala

Junior maila

- ▶ Silvia Martinez
- ▶ Maria Altuna
- ▶ Udane Sarasola
- ▶ Maider Oteiza
- ▶ Tatiana Carmona
- ▶ Iraia Azkue

Kadete maila

- ▶ Ana Usabiaga

LORPEN NAGUSIAK

Ainhoa Pagola. 1. Pistako Challenge-ean, 1. Euskadiko Txapelketan (Match-Omnium), 1. Espainiako Txapelketako 500 metrotako proban, 2. Espainiako Txapelketako abiadura eta keirin probetan.

Udane Sarasola. 3. Euskadiko Txapelketan (Match-Omnium), 3. Espainiako Txapelketako abiadura eta jazarpen probetan.

Xari Rodriguez. 1. Castelloneko Espainiako Kopako proban, 2. Genoveseko Espainiako Kopan, 18. Durango-Durango Nazioarteko Sari Nagusian, 21. Emakumeen Birako sailkapen orokorrean.

Ana Usabiaga. 1. Sevillako Espainiako Kopan, 3. Gironako Espainiako Kopan, 2. Madrilgo Espainiako Kopan, 1. Roldaneko Espainiakoan, 1. Sopolako Euskadiko Txapelketan, Espainiako Kopako liderra, bi proben faltan.

Maider Oteiza. 1. Ordoñanako Euskaldun Txapelketako proban, 3. Sopolako Euskadikoan.

hilberriak eta urteurrenak ▶

Martin Etxaluze Zubeldia

ATZO hil zen, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
 —Goian bego—



Bere senideak: Mari (+) eta Juan Alustiza, Dami eta Manuel Diaz (+), Ines eta Joxe Alustiza, Bernardo (+) eta Mari Aldasoro, Miren eta Joxe Mari Berasategi (+), Joxe Mari eta Mari Tere Arostegi, Karmen eta Joxe Mari Mundiute eta Izaskun; ilobak, lehenusauk eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela GAUR ASTEARTEAN, arratsaldeko ZAZPIETAN, Zeraingo Andre Mari Jasokundearen parroki elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

oharra ▶ gorpua Beasaingo bellategian egongo da
 hibeldea ▶ Gurea Taldea, 5-1esk.

ZERAINEN, 2006ko uztailaren 25a

hilberria ▶

Xabier Olaskoaga Lasa

(Lau Haizetara Euskaldunon Elkarteak ohorezko bazkidea)



*Atsegin eta errespetuz
 Xabier izan zaitugu ondoan*

Muxu handi bat

Lau Haizetara
 EUSKALDUNON ELKARTEA

ERRETERIA-ORERETAN, 2006ko uztailaren 24ean

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko uztailaren 25a, astearta ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

26

hotzena

21

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

943 30 43 46

Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila

AGENDA ▶

JAIAK

Villabona. Santioetako egitaraua: 08:00etan, diana Tolosako dultzaineroekin. 10:30ean, herri krosa Zumbeltz elkarteak antolatuta (alebinak eta benjaminak), Txerminen. Ondoren, herri krosa, Zumbeltz elkarteak antolatuta (gainontzeko kategoriak), leku berean. 11:00etan, dantzari Txikien kalejira auzoz auzo. 12:00etan, Meza Nagusia parrokian; kalejira Debako Musika Bandarekin. 13:00etan, Debako Musika Bandaren kontzertua Txistulari plazan: Udal korporazioak urteroko bisita Santiago egoitzara. 19:00etan, soka dantza plazan, Villabonako Oinkari dantza taldearen eskutik. 20:00etatik 22:00etara dantzaldi-erromeria Zirika taldearekin, plazan. 22:30ean, Arkaitz dantza taldearen emanaldia Arroan. 23:00etan, lpi eta Skamabxin-en kontzertua gaztebelean. 00:00etan, dantzaldi-erromeria Zirika taldearen eskutik plazan.
Leitza. Santa Krutzen erromeria jubilatuta: 13:30ean meza; ondoren bazkaria (norberak berea eraman behar du eta edaria, postrea, kafea eta kopa, elkarteak) eta trikitaliak.

DEIALDIK

Alegia. Erromesaldia Arantzazuko santutegira abuztuaren 6an. Izen-ematea 943 65 40 72an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112. Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

IRRATIA

Txolarre irrati (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren erreposoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.
21:00-22:00. *Zaharrak berri*.
22:00-23:00. *Street noise*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Abestia eskaini zioten ezkontzera doan herritar bati. I. TERRADILLOS



Jende ugari bildu zen Mariachi Perlakoan doinuez gozatzera. I. T.

Mariachien xarma berezia

TOLOSA ▶ Ezpeleta Ostalaritza elkarteak eta Udalak antolatuta, Mariachi Perlakoan doinuek izan ziren entzungai larunbat gauean herriko kaleetan



Kalez kale eta tabernaz taberna, giro berezia sortu zuten mariachiek. IÑIGO TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Gauero giro ederra mexikarren doinu bereziekin uztartu zen larunbat gauean Tolosako kaleetan. Izan ere, Ezpeleta Ostalaritza elkarteak eta Udalak elkarlanean, «jendea larunbatetan Tolosatik kanpora joaten denez, eta herriari bizia emateko» Mariachi Perlakoan emanaldia antolatu zuten.

Hala, gauerdian hasi ziren kalez kale, herriko tabernetan geldialdiak eginez, Mexikoko ohiko abestekin giro alaituz. Jende ugari erakarri zuten mariachiek, eta eurak ezetik, herriarrek ere abestu zituzten kantak, asko oso ezagunak baitziren. Sorpresarik ere izan zen taratean, ezkontzera doan lagunari koadrilakoei egin nahi izan ziotena, alegia; Perla-koei neskari abesti bat eskaintzeko eskatu zioten, eta taldeki-de guztiak inguratuta jaso zuen neska hark oparia.

Giro berezia izan zen, eta izan zuen arrakastarekin nabari zen jendeak gustuko zuela.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
Nahia, 5 muxe pottolo etxeko printzesari. Ondo pasa eguna Gorki, aita eta ama.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZaren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZaren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...